

# Aretxa gazeta


Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko uztailak 23 • 149. zka.



## Oporretara!

Gustu guztietarako aukerak aurtengo oporretan



**EGUZKIGRAF**  
in primategia



# ONDO PASA OPORRETAN

eta



# JAI ZORIONTSUAK !!



Araba Ibilbidea • Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

**EGUZKIGRAF** Uztailaren 30etik Abuztuaren 31ra itxita

O P  
N A  
D S  
O A  
U



*Aretxabaletako Udalak  
jai zoriontsuak opa dizkizue*

# Zer egingo duzu oporretan?



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura  
sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

**Maidor Urzelai**  
(Ikaslea)

Ingeleseko intentsibobat egitera joango naiz Segurara. Lehenengo hamabostaldia pasako dut bertan.

Andramaixetarako herrira etorriko naiz.



**Ruben Romero**  
(Ikaslea)

Castellon aldera joango naiz hamabost egunetarako. Ondoren, berriz, Santanderrera joango naiz. Andramaixetara ez naiz etorriko. Ikasteko aprobeztatuko ditut egun hauek.



**Cloti Bartolome**  
(Etxekoandrea)

Errioxara joango naiz. Pistinara joan eta paseatu egiten dut. Lasailasai igarotzen ditut oporrak.

Hile osoa bertan egongo naizenez, ez naiz Andramaixetara etorriko.



**Danel Larrañaga**  
(Ikaslea)

Kanping-ean pasako ditut oporrak. Karabanak dauden lekura joango naiz.

Ez dakit zein egunetan joango garen, baina oso ondo pasatzen dut.



## eskutitza

### EGIN erasotua

Gauetz eta bortizki erasotu dute Egin Egunkari-Irratia eta berarekin batera 20 urtetan Euskal Herriko leku guztietara eta bere alde zabaldu duen adierazpen askatasuna gizarteko arlo guztietara (politika, kirola, kultura, langile, ekonomia eta abar). Era berean 210 langile gauezik-egunera kalean usteak eta bertako lankideen atxiloketa neurri gabeak ez du inongo justifikaziorik.

Egin itxi dutela uste badute, guztiz erraturik daude. Ez dakite, herri honetako Egin zale askoren bihotzetan dagoen elkartasunaz Egin kaleratuko dugula. Ezingo dute Euskal Herriko populazioaren sektore garrantzitsu batek errebindikatzen duen eraikuntza nazionalaren proiektuaz informatzeko askatasuna eta espresatzeko biderik aurkitzen ez dutenei leku bat emateko adierazpen askatasunarekin batera, ideiak, pentsakerak eta abar kaleratzerik gabe edukitzea. Egin

egunkari-irratia erasotu eta "estatu eskubidean" gaudela esaten duten botereko pertsona anker horiek, askotan kolpetu dute euren azpijokuez Egin egunkari-irratia, baina hara non, komunikabide batek, Egin alegia, barkatu ezinezko adierazpen askatasuna erakutsiaz, era profesional eta lan sakon baten ondorioz agintzen dituen sasi-demokraten trapu-zahar, manipulazio, neurri prepotente eta haundi-nahikeriak azalean utziz. Horregatik eta herri hauetako gizarte sozial berdintsu eta askatu baten alde lan egiten dutenen eskuetara heltzen delako deusestatu nahi izan dute Egin Egunkari-Irratia.

Adierazpen askatasunaren izenean Egin-ekiko eta berau osatzen duten lantalde, atxilotu guztiei elkartasuna adieraztea nahi dugu atxabaltar bazara, baita, eraso hau salatzea eta gonbidatzea Egin-en alde herrian egingo diren ekitaldietara.

Aretxabaletan berriro Egin irakurri

eta entzungo dugun ziurtasunez, gero arte. Egin egingo dugu!!

ARETXABALETAKO HITZ-EGIN  
PLATAFORMA

### Oporretan goaz

Beste askori bezala, geuri ere iritsi zaigu deskantsatzeko, eguna. Beraz, irailaren 3a arte ez duzue beste Aretxagazetarik irakurtzeko aukerarik izango. Ah! baina ziur egon Andramaixetan elkar ikusiko dugula. Ondo pasa oporrak, eta baitxa Andramaixak be!

Ez ahaztu, aurreko urtean bezalaxe, aurten ere postal lehiaketa egingo dugula. Irabazleak Burgales jatetxean bi pertsonandako afaria irabaziko du. Badakizu, ez denborarik galdu eta idatzi.

Ondo pasa guztiok!!!

ARETXAGAZETA

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Iruñe Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzalea:** Itxaso Barbero. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

## Dantza eta ikuskizuna nagusi Portasolgo jaietan

Eguraldi ederra lagun jai giro beroan ospatu ziren Portasolgo jaiak joan den asteburuan.

Gaueko giroa izan zen ikusgarriena eta martxosoena, espektakulu haundiena sortu zuena bai behintzat. Alde batetik DJ kontzertuak gazte pila bildu zituen eguakotxean eta zapatuan nagusiagoek Karibe aldeko dantza eta musikaz gozatzeko aukera bikaina izan zuten.



Nortzuk dira hauek? Azken urteetan Portasolgo jaiak antolatu dituzten PAGLEkoak dira eta aurrean antolakuntzatik libre gelditu direnez, begira ze ondo ospatu zituzten jaiak.



Buruhandiak eta umeak, a ze pareta, karakola eta barea!



Portasol aldera hurbildutako guztien begiak erakarri zituzten gaueko izar hauek.



“Cachito, Cachito, Cachito mío, pedazo de cielo que Dios te dio...” hauek bai jarri zutela giroa. Emakume Karibearren dantzaldiei batzuk begiak ezin kendu egon ziren.

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 943 79 71 69

**IBARRA**

ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

**M**

**MEMESA**

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

**PAGALDAI**

Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABALETA

## Cristobal Altube "Txindurri"ren 100. urteurrena

Cristobal Altube Vergara, "Txindurri" bezala ezaguna, 1898ko ekainaren 10ean jaio zen Atxabaltan.

Abeslari ospetsu honek ez zitu bere lehen urratsak kantuan egin, hamar urterarte artzai ibili zen eta. Arrasateko Unión Cerrajeran lanean aritu ondoren, soldaduzkara joateko ordua ere iritsi zitzaion. Bertan, Alfonso XIII.a

erregearen aurrean abestu ahal izan zuen. 23 urte zituela, musikako ikasketak burutu zituen, Italian amaitu zituenak.

Egia esan atxabaltar honek ez zuen denbora askorik herrian igaro, Madrilen bizi izan baitzen bere heriotzerarte. Baina hori bai, urtero-urtero Andramaixetara etortzen zen, sonbreroa, fraka eta zapata zuriak soinean zituela.



Cristobal Altuberen monumentua Andra Mari auzoan

### Kabiak uretan

Azkenaldian Urkulun egon zaterenok, izango zenuten uretan kabiak ikusteko aukera. Kurioso ba dirudi ere, hala da eta.

Urkulun bizi den hainbat hegaztik, beraien kabia egin dute uretan. Bata bestearengan gertu daude, eta ertzetik samur ikus daitezke, Iraban

inguruan adibidez.

Bestalde, kumea bizkarrean eramaten duen ahaterik ere ikus daiteke.

Denbora pasa ahala, bertako hegaztiak pertsonengan konfiantza hartuaz doaz. Egia esan, oraingoz behintzat pertsonok ere errespetua adierazten dugu eta. Ea horrela jarraitzen den.



### Zuhaitzak arriskuan zurituta azaldu ondoren

Trenbidean Kurtzebarri eskola ondoan bi zuhaitz (ezkiak) azala kenduta azaldu dira aurreko egunotan. Zuhaitzetako batek 50 zentimetrotako diametroa du eta guztiz zurituta dago, behetik hasi eta lau metroko altueraraino. Zuhaitz hauek igartzeko arrisku bizian daude, izan ere, arbola bat igartu nahi bada, goi eta behe zuritzea nahikoa da.

Azken asteotan herrian gertatzen ari diren gazteen bandalismo ekintzetan sar daiteke honako hau ere. Gauetan gazte askoren bilgune da zuhaitzak zuriturik azaldu diren txoko hori. Aurreko alean esaten zena errepikatu beharrean gara gaurkoan, oporrak direla eta batzuk ez dakite zer egin.

Arazo honi irtenbide bat emateko lehenbailehen neurriak hartzea komeni da, gaur zuhaitz bat izan bada bihar beste bat izateko arriskua dago eta. Baina arazoa ez da hor bukatzen, honen sustraia gaur egungo gazte batzuen jokabidean dago, orain horrelakoak egiten badituzte, gero zer?



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Andramaixak jai giro beroan datoz

**Deabru beltza, Lorelei eta Skalariak taldeen kontzertuak, karibear erritmoko musika, zezen mekanikoa, paella erraldoia, "La parranda mexicana" eta beste mila ikuskizun gertu daude Andramaixetarako**

Abuztuaren erdi erdian Andra Mariren etorrerarekin batera herriko jai nagusiak hemen izango ditugu. Jai Batzordea Udalaren kultura sailarekin batera fin ibili da jaiak antolatzen eta egia esan egitarau txukuna antolatu dute, sorpresa eta berrikuntzaz betetakoa. Tarte honetan jai batzordearen lana goraiatu nahi izan du Inma Miguel kultur teknikariak: "jai batzordeko partaideen lana benetan garrantzitsua eta eskerronekoa izan da". Era berean jai hauetan gure artean izango ez diren batzuk gogoan izango dituztela ere gehitu du.

Bestalde, esku programa kurio-soa atera da aurten. Lehen begiratuan herriko hiru artista gaztek egingako kartel koloretsua daukagu. Zaratarik entzun nahi ez dutenentzat apropos gertatutakoa da, berriz, kontraportada.

## Erritmo ikuskizun bizia

Andra Mariren bezperan, hilak 14, kanpai errepikien ondoren, herriko mus zaletu ugari batuko ditu XIX. Mus txapelketak. Umeak animatuz joateko, bestalde, parkea jarriko da plazan eta erraldoi eta buruhaundiak ere jaigiroari ongietorria emateko prest izango dira, 8,30etako txupinazoak jaiei hasiera ofiziala eman aurretik.

Gauean bolo zaletuen zita izango da alde batetik; Ines eta Naiararekin dantzaldia bestetik eta Deabru Beltzak taldeak erritmo ikuskizun bizia eskainiko du txosnetan.

## Bandaren ordez akordeoi orkestra

Ama Birginaren egunean, meza nagusira jendea erruz hurbilduko da. Honen ondoren aurten Zumaiako bandak ez gaitu bisitatuko, baina bere ordez herriko akordeoi orkestraren emanaldiaz gozatzeko aukera izango da. Jai batzordeak esan beza-



Guztira zortzi kartel aurkeztu dira Andramaixetako kartel lehiaketara. Aurtengo kartel irabazlea goian ezkerrean.

laxe, "taldeak duen maila ikusita, aurten herriko taldeari eman nahi izan diogu aukera".

Egun honetako sorpresa nagusia, bestalde, "Achere" Habanako taldeak eskainiko du afrokaribear musikarekin. Gauean pelotazaleentzat pelota partiduak eta hauen ondoren suzko erruera ikusgarriek argituko dute gaua. Txosnetan, berriz, zezen mekanikoa egongo da.

## Rock kontzertu bikaina

Aurreko urteetan bezala txirindulari lasterketarekin hasiko da jaietako hirugarren goiza. Eguerdialdera, berriz, dantzarako gogoak duenak une aproposa izango du Ludi Berrirekin. Arratsaldean sokamuturraren ostean, "Mairuek" erraldoi konpartsak kaleko giroa pil-pilean ipiniko du. Gaua ere martxoso etorriko da, Lorelei eta Skalariak taldeekin.

## Mexikarrekin bukaera

Jaiei amaiera ona emateko zer hobe "La parranda mexicana" mexikar taldea baino. Duda barik herriararekin batera honek ipiniko du

jaietako azken txispa. Dena dela, egunean zehar animazioa sortuko duten ekintzak ez dira faltako: txistulariak, sokamuturra, Boomb-Eroak ikuskizuna Hankagorri taldearen eskutik, iaz moduan paella erraldoia, 500 pta balioko duena, umeentzat parkea, txaranga...

## Txosnetan kriston giroa

Gestorak eta Jarraik ipiniko duten txosnen ingurura hurbiltzeko izango da arrazoirik lau egunetan. 14an txupinazoa botako da falta direnengatik. Ondoren Axuren pregoia egongo da eta baita Chiapaseko diapositiba emanaldia ere. Andra Mari egunez, malabarrak, ipuin kontalaria, gazte taldearen kalejirak eta zezen mekanikoak izango dute tarteak.

"Euskal Presoak Euskal Herrira orain eta baldintzarik gabe" izenpean ospatuko da hirugarren eguna, herriko bi presoei omenaldia eginez. Gauean, arestian aipatu bezala, Lorelei eta Skalariak taldeekin kontzertua egongo da eta azken egunean "La parranda mexicana".

## Herrian batutako hondakinen eboluzioa

Jarraian, 1997 eta 1998 urteetan zehar herrian jasotako hondakinen eboluzioa azaltzen da. Papela, kartoia eta beira dira oraingo honetako protagonistak.

Pasa den ekainerarte, 77,522 kilogramo kartoi eta paper batu dira herriko kontenedoretan. Hilez-hile aurreko urtean batutakoaz konparatuta, kopurua haunditu egin da. Pasa den urtean 151.035 kg. jaso ziren, horietatik 73,852 urtarrila eta ekaina bitartean jasotakoak izanez.

Hileko batzen den kartoi eta paper kantitatea, nahiko uniformea da, orokorrean antzeko kilogramo kopurua da jasotzen dena eta.

Mankomunitate mailan 1,293,661 kg. batu ziren pasa den urtean. Kopuru honen ia erdia, Arrasaten jaso zen, Eskoriatzan, berriz, 69.761 kg. eta Gatzagan 3,227 kg.



*Herrian jasotzen den papela, kartoi eta beira kopurua urtetik urtera haundiagoa da*

### Beira ere gorantz

Azken sei hilabeteotan jaso den beira kopurua, aurreko urtekoa baino nabariagoa izan da. Dagoneko 65,354 kg jaso dira Aretxabaletan, hileko media 10,892 kg.takoa izanik.

1997 urtean batutako beiren hileko media, 9,594 kg.koa izan zen.

Aurtengoari dagokionez,

610,938 kg.takoa izan dira Deba Garaian batu den beira kopurua.

Pasa den urtetik aurtengo ekaina arte, Elgetan batu da beira kantitate txikiena.

Orokorrean, bai papela eta kartoia, bai beira, baita etxeetako hondakinak ere gehituz doaz.

Informazioa hau, Deba Garaiko Mankomunitateak utzitakoa da.

## Ondo pasa jaietan, zuekin egongo gara!!!



ARETXABALETA OKINDEGIA Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19 Mitarte, 1 ☎ 943 77 00 81 Aretxabaleta



*Udalekuetako talde nagusienak edarto pasa du udalekuetan*

## Udalekuetako talde nagusiena primeran

Gainontzeko taldeentzat bezalaxe, esperientzia zoragarria izan da aurtengoa udalekuetako talde nagusienarentzat. Bai hiru begiraleek baita hamaika taldekideek ere oso ondo pasatu dutela behin eta berriz errepikatu digute eta, jakina, orain udalekuak bukatzen direlako penaz ei daude.

### Era guztietako ekintzak

“Hamaika eta hamairu urte bitarteko adina duten gazteak izanik, era guztietako ekintzak egin daitezke hauekin”, azaltzen du Ibai Bengoa begiraleetako batek. Horrela denetik egiteko aukera izan dute udalekuetan: Gamarrako pistinetara eta Galartzako etxera bi egunetako irteera, tirolina, bizikleta irteera, eskalada, patinetan ibili eta golf-a moduko kirolak besteak beste. Kirolaz gain eskuak ere ondo trebatu dituzte, pultserak, erroskilak eta ogia egiten esaterako. Guzti hau ikusita, aspertzeko denborarik ez dutela izan

gaineratu digute gaztetxoek. Garazi Ohiangureni esaterako eskalada eta Galartzako irteera gustatu zaizkio gehien. Egun guztiak zoragarriak izan direla esaten duenik ere badago. Elena Canok diozkenez, “ekintza guztietan ondo pasatu dut”. Kerman Canok, hamaika urte dituen taldeko mutil bakarrak eta gazteenak, berriz, lagun pila egiteko aukera izan du eta penaz dago udalekuen bukaera iritsi delako. Datorren urtean osterata etortzeko asmoa azaldu du eta bere adinekoak ere animatu nahi ditu udalekuetan apuntatzera.

Umeek bezalaxe primeran pasatu dutenak hiru begiraleak izan dira: Ibai Bengoa, Mirari Arando eta Leire Pagaldai. Ibai izana zen begirale aurreko urteetan ere, baina Mirari eta Leirentzat aurtengoa lehen aldia izan da. “Guk ere umeak bezala pasatu dugu, eta esperientzia zoragarria izan da gainera. Datorren urtean ere begirale izatea gustatuko litzaiguke”.

## Herria akordeoilariz beteta

Pasa den asteburuan, zapatuan konkretuki, Jugoslaviako 26 akordeoilaria inguru egon zen herrian. Lehenik eta behin, me-rezitako harrera egin zitzairen Udalaren eskutik. Plaka bat, herriko liburuak eta Aretxagazeta batzuk eman zitzaizkien bertan.

Bestalde, Jugoslaviarrek ere izan zuten zer oparitu; koadro bat eta likorra ekarri zuten.

Gure artean eginiko egonaldian, Azatzako aterpetxean lo egin zuten. Bazkariak berriz, Muru-Alde eta Uratz-Alde elkarte gastronomikoetan egin zituzten. Ondoren, zapatu arratsaldean kontzertu bikaina eskeini zuten parrokiari.

Oraindik Euskal-Herrian bisita batzuk egingo dituzte, Bilbo, Getaria, Donostia, eta Arantzazu beste batzuen artean.

## Urteroko Aratz-en festa

Giroz betetako festa antolatuzuen Aratzek pasa den hilaren 18an Apotzan. Bertara Eskoriatza eta Aretxabaletako familiak gerturatu ziren, guztira 50 partaide elkartzuz.

Jolasak, bazkaria, dantza... denetik egiteko aukera egon zen bertan. Izan ere, eguraldia horretarako aproposa zen eta.

Urtero Apotzan ospatzen den jai honetan, ederto pasatzeaz gain, guztientzat opariak egon ziren.

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 943 79 17 53  
ARETXABALETA



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

**Mobiliario  
ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# Sebastian Uribetxebarria

## Kolonbiako San Clemente proiektuaren arduraduna


Koruetakoko Urkulu base-  
rrian sortu zen orain 57 urte.  
Eskoriatzako marianistetan,  
Elorrion eta Zaragozan ikasi  
zuen eta han eta hemen lan-  
nean ere aritu zen, 1973. ur-  
tean Kolonbiara joan zen  
arte. Gaur egun San Cle-  
mente institutoko irakasle eta  
zuzendaria da Sebastian Uri-  
betxebarria marianista. Ho-  
rretaz gain nekazaritza eta  
abeltzantzarekin zerikusia  
duten hainbat proiektu gara-  
tzen ari da bertan eta Hi-  
ruatxen laguntza jaso du ho-  
rretarako.

**- Zein da San Clemente es-  
kualdean garatzen ari zareten  
proiektua?**

- San Clemente herri neka-  
zaria izanik, horri, egokitutako  
batxilergoa sortzea erabaki genuen,  
laborantzara bideratutakoa hain  
zuzen. Gure arazoa zera zen: ne-  
kazariek produzitzen bazekitela  
baina komertzializatu eta trasfor-  
matzeko arazoak zituztela. Beraz,  
teoria eta praktika tartekatuko  
zituen nekazal batxilergoa sortu  
genuen.

**- Eta Hiruatxek zertan lagun-  
du du zehazki?**

- Tailer batzuk sortu ditugu eta  
beste batzuk egiteko proiektuak  
daude. Barazki, fruta eta esnekien  
bi tailer martxan jarri dira. Esne-  
kien tailerrari dagokienez, 50 milioi  
pesotako inbertsioa egin dugu, eta  
infrastruktura aldetik tailer ona da.  
Bertan iogur, esnea, mantekila,  
gazta... produzituko dira. Kali-  
tatezko produktuak dira eta dagoe-  
neko saltzen hasita gaude. Tailer  
hauek garapen puntu garrantzitsua  
suposa dezakete gure herrialdearen  
ongizaterako. Hau sortzeko beha-  
rrezkoa izan da Hiruatx eta Arra-  
sateko Harreman taldearen lagun-  
tza.



**“Elkartasun eta  
laguntza haundia  
aurkitu dut bailara  
honetan”**

**- Horretaz gain, aurrera be-  
gira beste proiektu batzuk ere  
badituzue ezta?**

- Bai, haragikien beste tailer bat  
abuztuan hasiko da martxan eta ani-  
malien hiltokia da buruan daukagun  
beste proiektu bat, tailerretarako  
lehengaia bertan izan dezagun.  
Jakina, horretarako animalientzako  
lekuak sortu behar ditugu eta horrek  
infrastruktura haundia suposatzen  
du. Bertako gobernuari laguntza  
eskatu diogu baina beti dirurik ez  
dagoela erantzuten du. Hortaz beste  
mota bateko laguntzetara jotzen  
dugu, laguntza internazionala esa-  
terako.

**- Hiru urtetik behin zure jai-  
o-  
gotea.**

**terrira etortzen zara. Zer  
aurkitu duzu bertan?**

- Alde batetik elkartasun  
eta laguntza haundia aurkitu  
dut bailara honetan; laguntasun  
haundia eskaini didan jendea.  
Komunikabideen aldetik ere  
oihartzun haundia izan du gure  
proiektuak oraingo honetan.  
Bestetik herriak izan dituen  
aldaketak sorpresa izan dira  
niretzat. Ondo estrukturatutako  
herria aurkitu dut, pasealeku  
eta etxe berriekin.

Nik, bestalde, deskantsa-  
tzeko aukera daukat hemen,  
gustora hartzen dira horrelako  
deskantsu egun batzuk, Kolon-  
bian ez baitut horretarako  
astirik. Horixe da beharbada  
hangoengandik ikasi ez du-  
dana, beraiekin lasai hizketan

gotea.

**- Eta nola deskribituko zeni-  
guke zuek bizi zareten eskual-  
dea?**

- San Clemente mendialdean  
dago, Kolonbia erdialdean, pazi-  
fikorantz, Andeatoko mendebal-  
dean, 2100 metrotara. 13.000  
biztanleko herria da baina hiru  
zatitan banatzen da, gure unjateak  
3.000 biztanle ditu. Herri nekazaria  
da eta jende gehiena mendialdean  
bizi da.

**- Oso desberdinak gara eus-  
kaldun eta kolonbiarrak?**

- Bai, desberdintasun asko di-  
tugu. Kolonbiarra orokorrean oso  
zabala da, dena esaten duena, eus-  
kalduna ixilagoa. Hortan kolon-  
biarrak irabazten du. Bestetik,  
eurak oso inteligenteak dira, krea-  
tiboak eta txispa dutenak, baina  
lanerako borondatea falta zaie.  
Euskaldunak hortan irabazten die,  
euskalduna iraunkorra eta oso lan-  
gilea da. Beste desberdintasun bat  
ere aipatuko nuke, han gezurra az-  
kar esaten da, edo tranpa egin, he-  
mengoak zintzoagoak dira.



## Euskal Federazioak- Selekzioak

**Futbolak,  
saskibaloiak,  
txirrindularitzak,  
... Ikurrinaren  
koloreekin  
euskaldun egiten  
gaituzte?**

**G**asteizko Legebiltza-  
rrean, oraintsu, onartu  
berri duten Kirol Legea dela  
eta hainbat aburu agertu zaigu  
edozein lekutatik.

Lege honen barruan dagoen  
atal txiki batek, Euskal Sele-  
kzioak-Federazioak sortzeko  
aukerak, sortu du ikusmirarik  
zabalena.

Españolek, alde batetik,  
haserre Espāniako Batasun  
Sakratua apurtzen omen due-  
lako; eta bestetik, adar soinu-  
an: zer egingo luke Euskadiko  
Selekzioak nazioarteko txapel-  
ketetan? Norekin jokatu-  
ko lukete Errealak, Alavesek,  
Athletikek gure liga txapelketa  
antolatuko balitz? U.D.A.re-  
kin, Mondrarekin, Barakaldo-  
rekin,...?

Baina, entzundakoak zein-  
tzuren ahotatik irten diren

ikusita, normala.

Baina gatozen geurera. Gu  
euskaldun, jator, abertzaleok,  
zergatik hainbeste ahalegin  
honetan?

Ahalegin hori ez al genuke  
gorde beharko gure nazioa  
eraikitzaera eramango gaituzten  
pausoentzat? Hori ere nazioa  
eraikitzaera pausu bat dela  
norbaitek erantzun diezadake.  
Bai, baina lehentasunik ez al  
dugu? Ala, lehentasuna honek  
dauka?

Futbolak, saskibaloiak,  
txirrindularitzak,...Ikurrinaren  
koloreekin euskaldun egiten  
gaituzte?

Ez ote dugu indar asko eta  
asko bigarren edo hirugarren  
mailetan ahitzen gero Lehen  
mailakoei eusteko?

---

KEPA ANTIXIA LETURIA

**MIREN**  
*Chunak eta beritasunak  
salneurri bereziak*  
Murubide, 1 ♦ 943 79 67 97

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea  
**Angelines**  
AUTOZERBITZUA  
Mitarte, 16 • 943 79 61 42

  
**Esko Sport**  
Kirola eta Sport  
moda Leintz  
Bailaran  
Intxaurtxueta, 5  
Zapata arratsaldetan  
abalik  
943 71 52 96 ESKORIATZA

# Oporretan

## sentsasio berrien bila

**Heldu dira hainbeste itxaron ditugun opor desiratuak. Batzuk oporren atarian izango dira, beste batzuk dagoeneko oporretan eta beste batzuen zoritxarrerako lan egin beharko duenik ere ez da faltako.**

**Zer egingo dugu aurtengo oporretan? Horixe askoren ahotan bueltaka dabilen galdera. Ba, denetik egongo da. Aukerak anitzak dira behintzat.**

**E**guzki azpian etzanda eta lasai egon, abentura bila lurralde ezezagunetara

alde egin, hondartza bakartietara, jairik jai parranda ederrak bota, belero batean itsasoratu... edo zergatik ez geure inguru ederra ezagutu? Gustu guztietarako aukerak eskaintzen dituen oporraldian barneratuko gara gaurkoan. Dena prestatu eta motxila hartuta goazen ba, oporretara!

### **BIDAIA AURRETIK PRESTAKETA**

Edozein motako bidaia izanik ere, alde zurretik prestaketa lanak egitea beharrezkoa izango da. Nora joan, nola, bertan zer ikusi, non lo egin... guzti horiek aurretik

pentsatu beharrekoak dira. Bidaia araberako prestaketa lanak desberdinak izango dira. Atzerrira bagoaz esaterako, bertako kultura eta bizitzeko erak ezagutzea komenigarria da. Informazioa liburuetan aurki daiteke, edo eta agentzietan, gazte bulegoetan eta herrialdera bertara heltzean turismo bulegoak zonaka espezializatuak egoten dira eta oso informazio freskoa izaten dute gainera; komeni da hauetatik bueltatxo bat ematea.

Atzerrira joaterakoan kontuan izan behar da baita bertako moneta. Kasu hauetan Visa txartela



*Edozein motako bidaia izanik ere, alde zurretik prestaketa lanak egitea beharrezkoa izango da*

eramatea oso baliagarria izango da. Era berean, atzerrira lasai joan nahi badugu asegurua ateratzea komenigarria da.

Bidai agentzietan, bestalde, bi oporraldi mota bereiz daitezke. Alde batetik, joan nahi den lekura joateko garraioa eta ostatua eskaintzen da eta, bestetik, agentziek bidaiaren guztia programatuta ematen dizute. Kasu hauetan maleta egin eta listo, burukomin handi barik.

## LEKUA EZAGUTUZ

Bakoitzak bere gustu eta lehen-tasunen arabera antolatzen ditu bere oporrak. Batzuentzat lekuak ezagutzea da garrantzitsuena eta beste batzuek jendearen bizitzeko ohiturei ematen die lehen-tasuna.

Paraje berriak ezagutzea, bidaiari askoren helburua izaten da. Horien artean Europak bisitari ugari hartuko ditu: Italia, Holanda, Frantzia, Ingalaterra... leku tipikoak dira. Aurten, bestalde, Lisboako Expoa dela eta inoiz baino turista gehiago jasoko du Portugalak. Hala ere, agentzi batek esan digun moduan, "infra-estruturura aldetik ez dago oso ondo antolatuta eta turistentzat eskaintza gutxi dago aldameneko estatuan".

Europatik kanpo Hego eta Ertamerika aldera jotzen du bidaiari askok eta nola ez, Afrikako estatu batzuk eta India ere ez dira atzera gelditzen. Alde batean zein bestean bidaiaria bitxikeriz jositako lurraldean aurkituko da.

## UDAN ERE IKASTEN

Oporrak batek baino gehiagok ikasteko erabiliko ditu. Batzuek bidaiatzea erabakitzen duten bitartean, beste batzuek hizkuntzak, ikasteko, euskara tarteko delarik, edo ikastaroak egiteko aprobe-txatzen dute. Hori da Alberto Izagirrereren kasua ere.

Albertok azken hiru urteetan

## “Turismo bulegoak zonaka espezializatuak egoten dira eta komeni da hauetatik bueltatxo bat ematea”

bezalaxe, aurten ere euskara praktikatzeko eta hobeto ikasteko erabiliko du bere oporretako denbora. Lazkaomendiko baserri batera joango da. Goizez euskarako kla-

seak hartu eta arratsaldean bakoitzak nahi duenerako astia izaten da. “Batzuetan baserrikoei laguntzen diet, bizikletan ibiltzen naiz beste batzuetan... gainera barnetegian ekintza ugari antolatzen dira eta han ez dago aspertzeko denborarik. Nik behintzat edarto pasatzen dut”. Horiek, beraz, Albertoren berbak.

## ABENTURA BILA KIROLETAN

Natura eta kirola tartekatuz beren oporraldia pasatu nahi izaten dutenen kopurua gero eta haundiagoa da. Sentsasio berrien bila abiatu nahi duenak eskaintza anitzak aurki ditzake, nahiz, aire, lur



Natura eta kirola tartekatuz beren oporraldia pasatu nahi izaten dutenen kopurua gero eta haundiagoa da



Mediterraneora, Kanariar eta Balear uharteetara eta karibe aldera joateko eskakizun haundia jaso da

## JAIK JAI EUSKAL HERRIAN

Oporretan herria zaintzen gelditzen diren askok eta askok inguruko herrietako jaietara joateko aprobetxatzen du. Udara modu honetan pasatzera animatzen denik ere bada, gehienbat gazte jendea. Jai giroan murgildu nahi duenak aukera zabala topatuko du Euskal Herriko hainbat txokotan. Askok oporretan joateko dirurik ez eta modu honetan opor merkeago batzuk bilatu nahi izaten ditu, baina argi, jaietan poltsikoak arin ibiltzen dira eta.

edo uretako jardueretan. Hori bai hauek ez dira inondik inora deskantsurako oporrak izango, baina horrelako ekintzetan ateratako izerdia gustora botatakoa, alegia.

Udako eguraldi hobea aprobetxatuz, abenturazko kirol asko uretakoak izaten dira, freskagarriak. Horien artean rafting-a, ur korrante biziko errekatetan txalupa batean jeistean datzana. Honekin batera piraguismoak, kayakak eta hidro-speedak, arroilen jeitsierarekin batera aisialdia uretako kirola eginez pasatzeko aukera eskaintzen diote abenturazaleari. Badira itsasoko uretan murgildurik bertako altxorrek ikustea gogoko dutenak. Beste batzuk belauntzian abentura bila abiatuko dira. Uretako kirolez gain, oporrak pasatzeko mendia aukeratuko dute beste askok. Hemen inguruan badago non ibili, eta pixkat urrunago joanez gero, pirineoak eta Picos de Europa ere hor daude.

Bestelako kirol zirrargarriak ere lekua izango dute uda honetan, parapenteak eta eskaladak horien artean.

## EGUZKIPEAN ETZANDA

Gure bailaran asko izango dira mediterraneorantz edo Kanariar eta Balear uharteetarako bidea hartuko dutenak, Arrasateko bidai agentzietan aurreratu diguten bezalaxe. Urtero moduan hondartza eta eguzki bila doazenak asko dira, eta Karibe aldera joateko ere eskakizun haundia jaso da. Bidaiariak giro epela eta eguraldi ona ziurtatuta izango dituen kostaldeko lekuak bilatzen ditu kasu hauetan; hondartzan eta eguzkipean opor egun lasai batzuk pasatzeko asmotan.

**“Bidaiari askok giro epela eta eguraldia ziurtatuta izango dituen kostaldeko lekuak bilatzen ditu”**

Kontuak ateratzen hasita, “oporretara joan izan banintz” bati baino gehiagori entzundako esaldia da.

## BASERRITIK BASERRIRA NEKAZALTURISMOA PRAKTIKATUZ

Nekazalturismoari esker gure inguruak ere eskaintzen ditu mendia, itsasoa eta tartean bertako kultura eta gastronomia sustraitik ezagutzeko aukera paregabeak. Gero eta gehiago da turismo mota hau probatzera animatzen den jendea, hiriko kutsadura eta zaratatik ihesi, naturarekin harremanetan giro atsegin eta lasaian.

Euskal Herriko txoko guztietan daude turismo mota hau bultzatzera animatu diren baserriak. Aurtengo udaran ere turista askok hartuko du ostatu baserri hauetan. Esatekoa da gainera, kanpotar eta etxeokoren artean harreman sakona eta estua sortzen dela nekazal etxe hauetan.

Dudarik gabe, urrun joan barik gustuko lekua inguruan aurkitzen dutenak ere asko dira.

## Aurten ere Naranja Mekanika txapelkun

Hilaren 21ean, martitzena, amaitu zen aurtengo Arlutz Futbito txapelketa. Zapatuan final laurdenak eta astelehenean final erdiak jokatu ondoren, finalera DDK eta Naranja Mekanika iritsi ziren. Azken hauek, 5-2 emaitzaz garaile izanik. Zorionak!

Partidu hau ikusteko aukera izan zutenek, emozioz betetako jokaldiak ikusi ahal izan zituzten.

Orokorrean, txapelketa honeta-

ko partaideek oso maila ona erakutsi dutela adierazi dute antolatzailleek.

### Gazteen txapelketa geld

Udalekuak direla eta, 13 urte arteko mutikoen futbito txapelketa geldu egon zen pasa den martitzenerarte. Baina dagoeneko martxan daude partiduak, eta datorren astelehenean finala jokatuko da.



Naranja Mekanika, Aurtengo txapelkunak.

## Abuztuan kiroltxeak ateak itxiko ditu

Uztailaren 31tik irailaren lehen egunerarte herriko kiroltxeak itxita egongo da. Baina aurreko urteetan bezalaxe, Arrasateko Musakolako kiroldegian igerilekuak erabili ahal izango dira.

Beraz, kiroltxean bazkide direnak, karnet berbera Arrasateko kiroltxean erabili ahal izango dute abuztuan zehar.

## Pala txapelketan bergararrak nagusi

Bukatu berri den pala txapelketan, Irureta-Alberdi bikoteak lortu du garaipena. Bigarren postua berriz, Arrasateko Garitaonandia anaiek eskuratu dute.

Orokorrean txapelketako parte hartzaileen maila oso ona izan da. Baina txapelketa ez da prestatutako egunean amaitu. Jokalariak egun aldaketak egin dituzte, eta azkenean txapelketa seriotasun handirik gabe amaitu da.

## Udako kirol eskolan partaidetza bikoiztu da

Aurtengo kirola euskaraz jardunaldietako balantzea positiboa izan dela jakinerazi dute antolatzailleek, joan den urteko partaidetza bikoiztu baita.

Uztailaren 10ean, jardunaldi hauekin batera eman zitzaion amaiera aurtengo Udako Kirol eskolari. Uda honetako edizioa Oñatin eta Eibarren izan da uztailaren 7tik 10era bitartean.

Ikastaroen artean, tenis, errugbi eta pilota ikastaroak izan dira kirolarientzat; eta aerobikekoa eta kirol alternatiboetakoak irakasleentzat. Partehartzaileei dagokienez, 80 ikasle inguru izan dira ikastarootan aritu direnak. Irakasle lanetan berriz hainbat kirolari ezagun egon dira: Jokin Errasti pilotaria eta Joxean Unsain pilotari ohia; Jon Azkargorta eta Iñaki

Laskurain errugbilariak beste batzuen artean.

Uztailaren 10ean burututako Kirola euskaraz jardunaldietan, kirolari, euskaraz teknikari eta kirol irakasleen artean 40 lagunetik gorako partaidetza izan zen.

Azken jardunaldi honekin batera, 1998ko Udako Eskolari amaiera eman zitzaion.

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETAKO

GARBITU S.  
COOP.

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

REGIO

*optika*

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

*Carmen  
Fernandez*

**ABOKATUA**

Belorrieta Auzoa, n° 14 - 4° A  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 77 05 94  
Fax: 943 79 65 21

# Amalur Garitaonandia

## “Aerobic-ak engantxatu egin nau”

Aurten aerobic-eko irakaslea izateko titulua atera du Amalurrek. Baina aerobic-a ez da egiten duen kirol bakarra. Behin edo behin gimnasia ere joaten da, aerobica lantzeaz aparte, gorputza lantzea ere garrantzitsua dela deritzo eta.

Aerobic-ak bizitasuna ematen duela ziurtatu digu 22 urteko atxabaltar honek, eguneroko stressak ahazteko ere tratamendu bikaina dela.

### • Nolatan Aerobic-eko irakasle?

Badira bi urte aerobic-eko klaseetara joaten naizena. Halako batean, egun nire begiralea denak titulua ateratzera animatu ninduen. Beraz, zapaturu ikastaro batera joaten hasi nintzen, azkenean monitore titulua ateratzea lortu nuen arte.

### • Amalur, emaguzu ikastaroaren berri.

Ikastaro hau Donostian egin nuen. Klaseak, zapaturu izaten nituen goizeko bederatzietatik ordu biak arte. Bai klase teorikoak baita praktikoak ere ikasi ditut bertan.

Hasiera batean ikastaro guztiz praktikoa badirudi ere, teorikoari garrantzi handia ematen zaio. Gorputzeko atalak eta aparailuak ikastea, eta zein ariketa den gomendagarria atal bakoitzerako, oso interesgarriak iruditzen zaizkit.

### • Kirol honetan zer da gehien lantzen dena?

Denetik pixka bat. Mota guztietako ariketak egin daitezke gorputzeko atal bat edo beste lantzeko.

Hanketako eta besoetako lana soilik izan ez dadin adibidez, klase amaieran flexio eta abdominalak egiten dira. Orokorrean oso kirol konpletua da aerobic-a. Gorputza orekatzen laguntzen du.

### • Dagoeneko egin dituzu ordezkapen batzuk ezta?



## “Oso kirol konpletua da Aerobic-a, gainera asko animatzen du”

Bai, Bergara, Aramaixo, Arrasate, Aretxabaleta eta Elgoibarren klaseak eman ditut.

Gainera jendeak oso gustora hartzen ditu begiraleen aldaketa hauek. Bakoitzak estilo desberdina daukagunez, ikasleei ere ariketa berriak ikasteko aukera ematen zaie.

### • Zure lanbidea izatea gustatuko litzaizuke?

Egia esan, ez nahiago dut tokiz aldatzen ibiltzea, jende berria ezagutzeta... hobby bezala hartzea. Gainera oso lan gogorra da, eta gorputza asko zigortzen da. Lan honetan ezin da eguneko zortzi ordu sartu.

Monitore izateak uste den baino lan gehiago dauka. Koreografia asmatu, entsaiatu, pentsatu, ikasleei nola erakutsi... ez da holako samurra.

### • Zer da samurragoa, haurrei ala helduei erakustea?

Egia esan ez dago desberdintasun handirik. Hala ere egia da, ikasleei samurrago gelditzen zaizkiela pausoak. Koreografia bat aurrera atera ahal izateko, fisikoaz gain burua ere asko lantzen da. Hasieran behintzat ez da gauza samurra pauso danak buruan izatea.

### • Aerobiton-etan ere egona zara...

Bai. Ahal dudana aerobiton guztietara joaten naiz. Bertan oso giro polita egoten da, eta gainera urtean zehar ikasitako praktikan jartzeko aproposa da. Beste maisuen pausoak ikasteko ere aukera bikaina da.

Honelako ekintzetan, gelditu gabe 4 ordu aerobic-a egiten irauan izan dut.

### • Musika nola aukeratzen duzu?

Aerobic-eko musika diseinatuta egoten da. Kirol honetarako bereziak diren kasetteak prestatuta egoten dira. Txarrena da, oso garestiak direla.

Saltzaileen helburua saltzea denez, edozein gauza asmatzen dute beraien salmentak handitzeko. Kasu honetan, aerobic-eko musika, jantziak, zapatilak... diseinatzen dituzte. Uste den baino moda gehiago dago kirol honetan.

Kaleko erropetan bezalaxe, aerobic-eane ere erropa desberdin eta berri ugari azaltzen dira. Jantziak segituan modaz kanpo gelditzen direla esan daiteke.

### • Zergatik uste duzu mutilek ez dutela aerobic-a praktikatzeko?

Dantza egitea dela uste dute. Telebistan orain arte hori erakutsi da eta. Askok beldurra ere izango dute neska askoren artera etortzeko. Ea bateronbat animatzen den...

Egia da ere, bertan diharduten mutilak oso maila ona dutela.

# Uda honetan ere bedarretan



Azken aldian, baserri gehienetan honelako makinak erabiltzen dira bedarra batzeko

**Ohitura den bezala, dagoeneko egun hauetan ere bedarretan fin dabilta inguruko baserriarrak. Udaberri eta udan egiten dira baserriko lan hauek, baina bereziki uztailean, bedar gehien dagoen hilea da eta. Batutako bedarrarekin, negu osoan behiei jaten ematen saiatzen dira.**

**Oraingo honetan, Aozaratz auzoan dagoen "Zargarai" baserrira abiatu gara gai honen inguruan zertxobait gehiago jakin asmoz.**

Badira urte batzuk, bedarra batzea lan gogorra zena, eskuare hartu, eta guztia eskuz egiten zen eta. Baina garai haretako lanak ere bazeukan bere edertasuna, familia elkartu, eguzki azpian bedarra batu, bertan hamaiketako egin...

Baina egun ditugun aurrerapen guztiak direla eta, makinek ordezkatu dute lan guzti hori.


Mota guztietako makinak aurki daitezke baserrietan, bedarrari buelta ematen diotenak, bedarra moztu eta batzen dutenak, eta bola siloak egiten dituztenak beste batzuen artean. Honek aurrerapen batzuk ekarri dituen arren, badute beraien pegatxo ere; kasu honetan prezioarena.

Bedarra batzeko makina batek, kostu handia suposatzen du baserriararentzat, are gehiago batutako belarrari erabilpen haundirik ematen ez badio. Inguruko baserri askotan bezalaxe, Zargarain ere, Aramaixoko kooperatiba bati saldu diote bedarra. Kooperatiba bera arduraratu da bedarra mozteaz eta bola siloak egiteaz. "Baserri-

tarrantzat oso garestia da honelako makina bat erostea. Traktoarren ostean jartzen den aparailuak adibidez, bola siloak egiteko erabiltzen denak, hiru milioitako prezioa dauka. Horregatik, badira baserri desberdinen artean makinak erosten dituztenak" esan digu Jose Martin Lizarralde gellaotarrak.

## Gero eta behi gutxiago baserrietan

Azken aldian baserri asko dira beraien behiak kentzen ari direnak, lana emateaz aparte, ez dute irabazi askorik sortzen eta. Horregatik, bedarra batzeak ere gero eta zentzu gutxiago dauka beraiarentzat. Inguruko baserriar batzuen asmoa ere, poliki-poliki behiak kentzea da. Beraz, egun mozten eta batzen ari den bedarra, ez da jabearentzat izaten.



Hala ere oraindik bada eskuareaz batzen duenik ere

## DOIKALSE

**Elektroerosio lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44

## BENGOA URDAITEGIA

*Bertako okelak eta mortzilik*

Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79

## IRIARTE

*Umeen denda*



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96



**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56





por garaiak nola aldatu diren urte gutxitan, esango du batek baino gehiagok. Gaur egun mundu guztia joaten da oporretan eta ez dago distantzian mugarik, gai-



## Ugasteira bueltatxoa

Kontinente batetik bestera zein erraz salto egiten den... Ez da ez garai batean moduan, orduan ezkon bidaian eta horrelako okasioetan irteten zen kanpora eta Espainia ezagutzera normalean, Malaga, Madril...

Gaurko honetako protagonistak ez ziren oporretara joan, baina udaldeko egun luze eta eguraldi epela mendialdera bueltatxo bat emateko aprobetxatu zuten.

Botak eta zapatilak jantzi eta Ugasteiko zelai ederretan jarrita atera zuten argazkia 60. hamarkadan. Eguraldi ederra egin zien gainera eta ondo baino hobeto aprobetxatu zuten eguna.

Argazkian ezkerretik eskumara: **Maria Josefa Arenaza, Jose San Miguel, Amaia Antxia, Jose Benito Ayastuy** eta aurrean **Jesus Etxebarria**.



*Lubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65  
/79 20 86 Fax: 943 77 17 20 ARETXABALETA

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 943 79 81 78  
ARETXABALETA

## LANA

◆ **ARETXAGAZETA**n egun osoz lan egiteko pertsona bat behar da. Baloratuko da: euskara maila, argazkigintza eta informatika erabiltze-mailan ezagutzea. Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea. Curriculum-ak irailaren 10a baino lehen Aretxagazetara (kultur etxea) ekarri beharko da edo 151 Postakutxatilara bidali.


◆ **ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI** elkarteak egun erdiz telebistan lan egiteko pertsona bat kontratatu nahi du. Baloratuko da irudi eta soinu teknikan ikasketak edo esperientzia izatea eta euskara maila. Curriculum-ak irailaren 10a baino lehen Aretxagazetara ekarri (kultur etxea) edo 151 Postakutxatilara bidali.

◆ Jatetxerako zerbitzaria behar da, neska edo emakume euskalduna eta esperientziaduna. Tfnoa: 943 79 24 58.

◆ Neska bat behar da hilean bi astetan umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 15 74.

◆ Joskina behar dugu kortinak eta edredoiak egiteko. Interesatuak deitu 943 79 27 27 (denda ordutegia).

◆ Pertsona bat behar da umea zaintzeko. Amaia-Berrira deitu (943 79 06 49) denda ordutegian. Gabez (943 79 28 74). Elena.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

## DENETARIK

◆ Bi lagun behar dira Donostiako Amara auzoan pisu bat osatzeko. Pisua egoera onean dago. Harremanetarako deitu: 943 79 27 42/943 79 53 58.

◆ Lepoko orlegi bat galdu zen Portasolgo jaietan. Aurkitu duenak mesedez deitu, 943 79 01 05 telefonora.

◆ Iruinean pisu bat osatzeko neska bat behar da. Pisua egoera onean dago. Tfnoa: 943 79 59 12.

## BEKAK

◆ **Hondarrabiko 1. arte beka.** Mojacar eta Hondarrabiko Udalek 1998an margogintzako hoge beka emateko deialdia egin dute. Beka horietara arte plastikoetako edozein aurkez daitezke. Eskaerak Bidasoa Turismo, Jabier Ugarte, 6 20280 Hondarribiara bidali. Epea: uztailak 24.

## ETXEBIZITZA

◆ Apartamentu bat salgai dago Donostiako Egia auzoan, Virgen Blanca kalean. Tfnoa: 943 43 11 00.

◆ Laredon hondartza ondoan dagoen apartamentua alokatzen dut. Tfnoa: 943 79 52 80.

◆ Pisua alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: (94) 6253196.

◆ Lokal komertzialak salgai Aretxabaletan. Azalera desberdinetakoak (50 m<sup>2</sup>-tik 200 m<sup>2</sup>-tara) Toki egokian eta prezio onean. Tfnoa: 943 77 16 41-79 96 72.

## LEHIAKETAK

◆ **Jokin Zaitegi XII. Itzulpen laburren sariketa.** Arrasateko AED elkarteak "Jokin Zaitegi itzulpen laburren XII. sariketa deialdia luzatu du. Gaia libreaz izango da eta munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Sariak 1.goa: 200.000 pta eta 2.a 100.000 pta. Epea: urriaren 31a. Informazioa 943 77 12 28 telefono zenbakian.

◆ **Aramaioko sagitario saria.** Gutxienez Europako mendebaldera bidaiatu duen edonor aurkez daitezke, bidaiaren bizitakoa, kontaketa literario batean aurkeztuz. Epea: irailak 15. Udaletxea, 01160 Aramaio, Araba.



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28  
**ARETXABALETA**

**ITURGINTZA**



Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 943 77 17 06

Aralar z/g  
Tfnoa: 943 77 17 04

**ARETXABALETA**

# Eskerrak



M. J. Arretxe

Bero gogorrarekin asper-asper eginda lanean eta dena pikutara bidaltzeko prest daukagunean, eskerrak oporrak datozena! bestela auskalo zer egiteko gauza izango ginen.

Oporretan gauza bitxiak gertatzen dira maiz eta bitxia da benetan, ez ohikoa delako gure artean, hurrengo kontua: **Josu Otxoak** Benidorm-eko "Pacha" pub-ean modelo lanetan pasatuko ditu uztaile eta abuztua. Beraz, Benidorm-era zoazten neskak badakizue nora hurbildu.

Oporretan **jaiak** nonahi izaten dira, **Portasolekoak** esaterako pasatu berri dira eta esatekoa da gaueko kontzertuak oso arrakastatsuak izan direla; ez dakiguna zera da jendea musika entzutera edo panoramaz gozatzerara joan zen. Bestalde, txapelketa ugari izan zen bertan. Marraski lehiaketan irabazlea **Jon Delgado** izan zen, ondoren **Mikel Barrenetxea** eta **Andoni Altube** geratu ziren. Musean honela sailkatu ziren: **Haritz Iturbe** eta **Mikel Etxabe** lehen, 2. **Ivan Andres** eta **Eneko Perez** eta 3. **Teo** eta **Benito**. Lehen auzokideak, berriz,

**Manolo** eta **Camuesco** izan ziren. Bukatzeko ajedrezak ere izan zuen lekua Portasol aldean. 16 urtetik gorakoetan irabazlea **Ivan Andres** izan zen eta **Mikel Lopez** bigarrena.

Jaiekin jarraituz itxura baten Andramaixak oso zara-tsua izango direla ematen du, esku programarekin batera **belarrietarako tapoiak** oparitzen dituzte eta. Aurten ezin zarataz kexatu.

Andramaixetan zure alkondara kalimotxo zikintzen bazaizu, lasai egon Loramendikoek kamiseta txukun batzuk ateratzeko asmoa dute eta.


Oporretan kulturarentzat ere beti egoten da lekua eta esatekoa da **Jugoslaviako 26 akordeoilari** izan direla gure artean. Beraian kontzertua parrokian izan zen. Kulturarekin lotuta dagoen beste bitxikeria bat komentatu dicate: **Cristobal Altube** musikari ospetsuaren 100. urterrena. 1898 ekainaren 10ean jaio zen eta, tamalgarria da honek izan duen oihartzun eza.

Oporretan ere kirola egin daiteke eta **Joseba Larri-naga** hemen baino eguraldi freskoagoa dagoela eta Birmingham aldera doa abuztuaren 6tik 16ra bitartean elbarrituen munduko atletismo txapelketara. Bertan 10.000 metroak eta maratoia korrituko ditu, egun desberdinetan suposatzen dut.

Oporrak ere hondartzara joateko dira. Araban itsasorik ez izan arren, Garaioak izan duen arrakasta ikusirik, landan ere hondartza bat egiteko asmoa dute.

Azkenik, oporretan kanpora zoaztenok ez ahaztu nitaz eta **bidali postal bat Aretxagazetara**. Hain gutxigatik ez da edozein lekutan afari bat oparitzen. Bueltararte.

## Liburutegiko txokoa



### Bidaia liburuak edo etxetik mugitu gabe bidaiatzea

**B**adira geografia liburuak leku desberdinen berri ematen dutena, baita bidaiarako gidak ere oporrak prestatzeko balio dutenak; baina oraingoan beste liburu batzuk ekarri nahi ditut hona: beren bidaiak kontatzen dizkiguten idazleen liburuak hain zuzen. Liburu hauetan lekuak ezagutzeaz gain bertako jendea eta idazleak izan

dituen esperientziak ere ezagutzeko aukera izango dugu.

Hasteko eta aurten Expoa Lisboan ospatzen dela eta Julio Llamazares-en "**Trasos montes (Un viaje portugués)**" liburua gomendatzen dizuet, Portugalgo iparraldean dagoen zonalde berezi hori ezagutzeko.

Afrikatik bidaiatu nahi duenari berriz Javier Reverteren "**Vagabundo en Africa**" eta "**El sueño de Africa**" gomendatuko nizkioke.

Euskaraz Jon Arretxe idazleak bere bidaien berri eman izan digu bere liburuetan. Aipagarriak dira "**Tubabu**" Afrikan zehar bizikletaz eginiko bidaia eta "**Tuparen seme alabak**" Brasilgo oihanetan eginikoa. Bizikleta utzi gabe Juan Martin Elexpuruk beste bi bidaia liburu utzi dizkigu: "**Kuba triste dago**" eta "**Alpeen itzalpean**".

Bizikleta alde batera utziaz eta Kubako irlara bueltatuz Koldo Izagirreren eskutik "**Ez duk erraza konpai**" gomendatzen dizuet zerrenda labur honekin amaitzeko.

Bide batez gogoratu nahi dizuet abuztuan Udal Liburutegia itxita egongo dela eta oporretan libururik etxera eraman nahi duenak liburuak irailan bueltatzeko aukera baduela.

Joseba Lopez de Armentia

UZTAILA

24, 25

**SANTIAGOAK KORUETAN**

Uztailaren 24an kanpai errepikekin jai ei hasiera eman ondoren, marrazki lehiaketa izango da. Ondoren 7,30etan meza nagusia eta auzo afaria gero. Gauean dantzaldia. Santiago egunez, 12etako meza nagusiaren ondoren txikiteoa. Arratsalderako mus eta briska txapelketa eta jokuak antolatu dira.

**UGASTEIN ERE**

**SANTIAGOAK**

Uztailaren 25ean, Santiago egunez, Ugasteitarrek festa ederra antolatzten dute Santa Kurtz ermitaren inguruan. Aurten ere 12,30etan meza emango du Arantzazuko fraile batek ermitan bertan. Gero bazkaria egongo da, eta iaz 85 lagun inguru elkartu zirela kontutan hartuta aurten ere ez da gutxiagorako izango. Bazkalostea trikitilariak alaituko dute eta mus txapelketa ere izango da. Afaltzeko Araotzera jeitsiko dira. Festa ospatzeko ohitura urte batzutan geldu egon bazen ere, aurten 9. aldiz jarraian ospatuko da.

30, 31

egvakotxa

**SAN INAZIO EGUNA MURU ALDE ELKARTEAN**

Uztailaren 30ean ilunkarako 8etan etxaflero jaurtiketaz ekingo du patrioiaren eguna Muru alde elkarteak. Ondoren 9etan afaria izango dute Gorrotxategi eta Agirre bertsolariekin. San Inazio egunez goizeko saldaren ondoren, meza izango da 12etan hildako bazkideen alde. Ondoren XII. bolo txapelketa.

ABUZTUA

14, 15, 16, 17

**ANDRAMAIXAK**

Herriko jai nagusiek jai giroan murgiltzeko sorpresa eta berrikuntza ugari ekarriko dizkigute Andra Mariaren etorrerarekin batera. Horien artean aurten ez dugu Zumaiako bandaren bisita jasoko, baina herria girotuko duen ikuskitunik ez da faltako, Deabru Beltzak, Skalariak, Lorelei, La Parranda mexicana eta antzeko taldeekin.




*Paella erraldoia egongo da Andramaixetan, 500 pezetatan.*

19

eguaztana

**EIBAR - REAL SOCIEDAD B**

Bigarren mailako futbol partidu amistosoak. U.D.A.k antolatuta arratsaldeko 5,30etan Ibarra Futbol Zelaian.



**LOGOPEDIA ZENTRUA**


Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea  
Tel: 943 79 79 46  
ARRASATE

**ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA**

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 943 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

## IKASTARROAK

### ZINE IKASTAROA

Ikastaro honetan besteak beste gai hauek landuko dira: muntaia, ekoizpena, zinearen teoria, zuzendaritza laguntzailea, ikusketa, analista... Europako beste herrialdeekin koprodukzioak, erroldai profesionaletan praktikak egiteko aukera, laborategiko lana ezagutzeko aukera, jaialdian partehartzeko aukera... Ikastaroa Urnietako Arte eszenikoko gunean emango da. Iraupena: 1998ko urria eta 99ko ekaina bitartean. Prezioa: 375.000 pta. Matrikula epea: irailaren 1etik urriaren 13ra. Ikasle kopurua mugatua. Informazioa: 943 33 20 32-943 33 17 96.

### BORONDATEZKO LAN AUKERAK UDARAKO

Aurtengo udan esperientzia hartu eta borondatezko lana egiteko aukera dago ondorengo elkarteetan: ASPACE, Sortarazi, Adembi, Agiantza, Zubietxe elkarte, Gizakia Helburu (Proyecto Hombre), Salhaketa, Bizitegi, Gazte Leku, Kalegintza, Gorbide, Emaus, ... Elkarte bakoitzean lan desberdinak daude egiteko: begirale lana, ekintza desberdinak antolatu, harreragile, aisialdiko ekintzak... Informazio gehiago nahi izanez gero ondorengo telefono zenbakira deitu: 94 441 06 52.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

### Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak bi langile kontratatu behar ditu.

### **ARETXAGAZETARAKO EGUN OSOKO LANGILEA.**

Baloratuko da: Euskara maila, argazkigintza eta informatika erabiltze-mailan ezagutzea, Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea.

### **TELEBISTAN EGUN ERDIZ ARITZEKO TEKNIKARIA.**

Baloratuko da: Irudi eta soinu teknikan ikasketak edo esperientzia eta euskara maila.

Curriculumak irailaren 10a baino lehen Aretxagazetara ekarri (kultur etxea) edo 151 postakutxatilara bidali.

### Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 79 03 22
• Oñati	943 78 04 11

### Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

### Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

## POSTAL LEHIAKETA

Uda honetan ere postal lehiaketa egingo dugu. Beraz, zauden lekuan zaudela idatziezaguz postaltxo bat. Postal guztien artean zozketa egingo da eta garaile ateratzen denak bi lagunentzat afari eder bat irabaziko du Burgales jatetxean. Sari honen irabazlea irailaren 17ko alean aterako da. Postala Aretxagazeta 151 postakutxatilara 20550 Aretxabaleta helbidera bidali behar da.

*Burgales jatetxea*

*Platerrik goxoenak giro atseginean*

Durana, 12 ☎ 943 79 20 63



16 urteko hiru neska atxalbaltar hauek izan dira, aurtengo Andramaixetako kartel lehiaketako irabazleak. Orain dela lau urte hirugarren saria eskuratu bazuten ere, aurten izan da garaipena lortu duten lehenengo aldia. Zorionak gure partetik.

- **Zenbat aldiz parte hartu duzue?**  
Aurtengoa laugarren aldia da.
- **Beti hirukoa izan da zuen taldea?**  
Bai. Orain arte aurkeztu ditugun lanak, hiruron artean egin ditugu.
- **Nola banatzen duzue lana?**  
Hirurok denetik egiten dugu. Ez gara lana banatzearen aldekoak. Bata gauza batekin hasten da, gero besteak jarraitzen

## “Ordenadorez baino, nahiago dugu kartelak eskuz egitea”

du...

• **Zer egin erabakitzeko, samurra da hiru pertsonen artean ados jartzea?**

Honetan ez daukagu arazorik, orokorrean gustuak nahiko antzekoak ditugu eta.

• **Zergatik aurkeratu duzue eliza?**

Eliza eta Durana kalea, herriko tokirik esanguratsuenak direla uste dugu. Era batean, herriaren erdialdea.

• **Zer da gehien kostatu zaizuena?**

Zer egin pentsatzea. Ideia erabakitzea.

• **Margo talderen baten zabilzate?**

Bai. Baina kartel hau gure kontu egin dugu, amaieran irakasleari erakutsi diogun arren.

• **Zergatik akuarelakin eginikoa?**

Lehenik eta behin, eskuz ordenagailuz egitea baino nahiago dugu. Aurreko urteetan ordenagailuz eginiko asko egon diren arren, guk geurearekin jarraitu dugu, eskuz eginez. Eta akuarela zergatik?

koloreek bizitasuna ematen dutelako, eta teknika garbia delako.

• **Gustora egindako lanarekin?**

Bukatu berri genuela eta, oso gustora geunden gure kartelaz. Gero denbora luzean ikusi ostean, ohitu egiten zara, eta ez diozu berezitasun haundirik aurkitzen.

• **Zenbat denbora behar izan duzue?**

Hiru egun inguru.

• **Espero zenuten irabaztea?**

Ez, baina itxaropena beti izaten da.

• **Datorren urtean zer?**

Datorren urtean ere ziur parte hartuko dugula.

• **Zer egingo duzue sariarekin?**

Jaietan gastatu.

• **Desberdintasunik badago zuen marrazteko eran?**

Jakina baietz. Baina desberdintasun horrek kartela asko jazten du, bizitasuna ematen dio.

• **Elizaz aparte, herriko zein beste leku gustatzen zaizue marrazteko?**

Errekabarren kalean dagoen iturri borobila adibidez, liburutegia eta bere ingurua, (Lausita aldetik ikusita ere oso polita da).

• **Orokorrean antzerako hobbia dituzue?**

Egia esan bai. Gaztetatik ezagutzen dugu elkar, eta beti elkarrekin ibili izan gara. Bestalde momentu honetan ere hirurok gara udalekuetako begirale.

• **Eta mutiletan antzekotasunik?**

Zoritxarrez bai.

• **Zergatik inistu ezizena?**

Ja, ja, ja. Tontokeriak esaten hasi ginen batean, izen honek irten zuen eta gustatu egin zitzaigun. Besterik ez.

## KOMIKIA

### EGUNEKOTUAK GAUDE JADA (Danba)

Mikel Arroiabe

MALETA ONDO PRESTATU,  
ONDO ITXI, TA JEITSU;  
HOR BEHEAN DAGO AITA  
GURE ZAIN KOTXEAREKIN;  
ALE! GOAZEN BA, GOAZEN BA,  
GOAZEN BA, HASERRETUKO DA  
ETA HAU EZ DA MODUA  
HASTEKO OPORRAK ...

ITXI OTE DUT GASA, BEHAR DUT JAKIN,  
ITXI OTE DUT GASA, HORRELA EZ BALITZ !!!

(M-ak)



# ANDRAMAIXETAN GIRORIK ONENA

## Arlutz taberna



*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALET  
Tfnoa: 79 32 34

## Kixkor taberna

**KIXKOR**  
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALET  
☎ 79 20 60

## Gurea taberna

Jatetxea eta  
taberna

**Gurea**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 79 20 64

## Josu harategia

- *Urdaitegia-Gozotegia*
- *kroasantegia*
- *Gertatutako janariak*

*Josu Harategia*

Mitarte, 1 • ARETXABALET  
Tfnoa: 77 03 08

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behe  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALET

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Basabe jatetxea

*Menu eta  
afariak*

**BASABE  
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 79 91 84

## Taberna Berri

Durana, 26 • ARETXABALET  
☎ 79 20 67

## Mendiola erretegia

◆ *Bazkari  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Haizea taberna

Mitarte, z/g • ARETXABALET  
Tfnoa: 79 85 57

## Ezkutu taberna

Mitarte, 9 • ☎ 79 92 01

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 79 73 65

## Baster alde jatetxea

Sasoiko jakiak giro onenean

Galartza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALET

## Artano taberna

Herriko  
plazan  
**ARTANO**

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 79 62 75

## Express akeitegia

**Express  
akeitegia**

*zure gustoko giroa*

Santa Kurtz, 16  
ARETXABALET ☎ 79 23 43

# Mondeo

Liderrak  
prezio-kalitatean

hitz egin dezagun  
902 442 442  
[www.ford.es](http://www.ford.es)

RS 24V 170CV 3.500.000 pta

GHIA 16V 130CV 2.800.000 pta

GHIA TD 90CV 2.700.000 pta

CLX 16V 115CV/TD 90CV 2.350.000 pta

Norbaitek Mondeo bat daukanean, 4 edo 5 ateduna, nahiz eta erabilgarri delakoa, edozein ibilbide egiten zaio laburregia. Izan ere, gidatzeak sortzen duen zirrarez benetan gozaten dutenek, Mondeo batekin inoiz baino gehiago gozatuko baitute errepideaz. Duen zehaztasunagatik, leuntasunagatik, egonkortasun berebizikoagatik, galga ematerakoan duen erantzunagatik, isiltasunagatik, bukatze mailagatik eta, noski, bere itsura erakargarriagatik. Mondeo bat inoiz frogatu ez duten horietakoa bazara, oraintxe duzu bat gidatzeko aukera.

# FORD Galaxy BERRIA

ORAIN TDI 110 CV  
3.275.000 PTA. TIK AURRERA



DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO  
OFIZIALA

**MUGARRI**

Argitaletxeak z/a • ARRASATE • Tel: 943 79 07 44 / 54

